

...eta

kittó!

911 zkoa.
2014-XII-5

euskeriaren aldeko jaixa




R.P.S. Nº 1469/10 I.L.G.

mō betaurreko
graduatuekin
ukipen-lenteak
DOAN

ARRASATE • BERGARA • BEASAIN • DONOSTIA
ERRETERIA • IRUN • ORDIZIA • TOLOSA

Kontsulta itzazu zure zentroan kanpainaren ezaugarriak. Ezingo da besto eskaintza batzuetan erabili.



Bidebarrieta, 2
Tel.: 943 20 05 22
EIBAR

MULTIÓPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan



kamisetak

12€



Trabazlea: NORA ARRILLAGA



Abenduaren 3an, Euskeraren Egunean, sare sozialen bitartez argazki hau partekatu duzuenon artean egindako **ZOKETAN Nora Arrillaga** izan da saritua.

Saria: eta kitto!ko sudadera + kamiseta

 facebook.com/etakittoaldizkaria

 @etakitto



Gabonetan
oparitu
sudadera eta
kamisetak

sudaderak

25€



Urkizu 11-n gaude.
Zatoz lasai ikustera!!

Bazkideek 2 euroko deskontua bi produktotan:
kamiseta 10 € / sudadera 23 €

NEURRI GUZTIETAKO KAMISETA ETA SUDADERAK

ASTEAN ESANAK

"Beltzak erosten zituen Voltairek etxeko-esklabo izateko; hori bai, bakarrik beltzen artean hautatzen zituen esklaboak, eta hori aurpegiatzen ziotenei zioten esklabo-eroslea baino askoz okerragoa zela bere haurrak salerosten zituen herria, hots, beltzek eurek zutela erruz gehiena edo osoa"

(PAKO SUDUPE,
IDAZLEA)

"Gure inteligentzia gainbehera dator: horrela adierazten du hainbat herrialdeetan neuritutako adimen-kozientearen garapenak. Koefizientearen hazkunde mailakatu, Flynn efektua deitutakoa eta XX. mende osoan egiaztatua, desagertzen doa. Bestalde, gizakien garuna %15 txikituta da azken 10.000 urteotan, nahiz eta harremanak asko egin duten gora. Hori bai, garun txikiagoa izateak ez du esan nahi arruntagoa denik; gaur egungo garunak osatzen dituzten sareak konplexuagoak eta eraginkorragoak dira"

(GURUTZ LINAZASORO,
SENDAGILEA)

"1980ko hamarkadan sartzen zen angula kopuruaren %10 inguru baino ez da sartzen orain, azken urteotan zeozer gora egin badu ere. Orain azaro erditik urtarillaren 31ra artekoa da angularen kanpaina; baina aratosteetako mareak izan dira beti angulatarako entzutetsuenak, eta kanpaina luzatu egin beharko litzateke"

(OIER ETA ALBERTO,
DEBAKO ANGULARIA)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten eusquera

KATXO.- Pelotari ezkertia. "Hórrek pelotari bixok katxuak dira".

KAUSIK PEZ.- Jaramonik ere ez. "Kausik pe ez zetsan egin".

KAUZIÑORIK EGIN EZ.- Jaramonik ez egin. "Ez desta kauziñorik egin".

eskutitzak

BETIRA ARTE, JULITA

Egun tristea da guretzako. Julita Valenciagari agur esan behar diogu; lankidea eta laguna, asoziazionismoaren sustatzailea, eta 1987an, beste dendari batzuekin batera, Eibarko Dendari Elkarteak sortu zuenetako bat izan zinen. Hiri-komertzioa, eta batik bat Eibarko komertzioa gogo biziz defendatu zenuen. Elkarteak presidente izan zinen urteetan, Dendari Elkarte bera eta Eibarko komertzioa erreferente bihurtu zenuen Euskadin. Behargina, beti laguntzeko prest, alaia, dinamikoa, Eibar eta bertoko komertzioa bultzatzeko egindako ekitaldi guztiekin konprometitua. Eibar Merkatalgune Irekia osatu eta sendotzeko lanean ere aktiboki



hartu zenuen parte. Erakundeen aurrean (Eusko Jaurlaritza, Udala, Merkataritza Ganbera...) lasaitasuna eta zintzotasuna transmititzen zenuen.

Barre asko egin dugu zurekin, aratosteetako mozorro eta eszenarantzekin. Barru-barruraino eibartarra, futbol-zalea eta **Eibar Futbol Taldearen** jarraitzaile sutua. Zure bihotzeko taldea 1.go mailan ikusi duzu eta zelaian bertan animatu ahal izan duzu REAL MADRID-en aurkako partiduan.

Eskerrik asko, Julita, gure artean egoteatik eta zure bizitzako zati izaten uzteagatik, eta gure eskerrik beroena egin duzun lan guztiarengatik.

EIBARKO DENDARI ELKARTEA

OLENTZERO MAITTIA

Aurten oso txintxua izan arren, ez dotsut jostailurik eskatuko. Amak diño etxian lekurik ez daguala eta jostailu zahar guztiak bota nahi dittuala. Nere lagunak, barriz, denetarik eskatu dabe: kotxe teledirigiduak, mahai jokuak, Play Station-ak... Maiderekin tablet bat bat eta dana eskatu dau! Aitorrek diño iaz baloi bat eskatu zebala, baiña ez zetsazula ekarri. Bere amak esan zetsan jostailuak egiten oso lanpetuta zabizela eta, batzuetan, danori kaso egitteko denporarik ez dozula eukitzen. Ba Aitor ni baiño txintxuagua da eta in-

glesian 9'5 etara dau! Gauza bat egingo dogu: datoren astian, **abenduaren 8tik 19ra** laga zure zakua gaztetxeko atian. Holan nik eta nere lagunak gure jostailu zaharrak barruan sartuko dittugu. Bestalde, Eibarko etxe guztietatik pasatzen ibilli barik, bialdu zeure ipotx pare bat Urkizuko parkera abenduaren **20xan (zapatuan), 16.00rak eta 19.00rak bittartian**, jostailuak banatzera. Nik Aitor abisauko dot, ia aurten berarendako baloiren bat dagan!

EIBARKO GAZTE ASANBLADA



Euskara Elkarteak

ARGITARRAZTZAILEA: ...eta kitto! Euskara Elkarteak. **HELBIDEA:** Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar

TELEFONOAK: 943 20 67 76 / 943 20 09 18. **FAXA:** 943 20 28 72.

Astekararen E-MAILak: erredakzioa@etakitto.com / komunikabideak@etakitto.com /

publizitatea@etakitto.com **Elkartaren E-MAILak:** elkarteak@etakitto.com / normalizazioa@etakitto.com

ERREDAKZIO-KONTSEILUA: Ana Aizpurua, Itziar Albizu, Maider Aranberri, Jose Luis Gorostegi eta Silbia Hernandez. **ADMINISTRAZIOA:** Marisol Uriarte. **KOORDINATZAILEA:** Ana Aizpurua.

ERREDAKZIO-BURUA: Silbia Hernandez. **DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** J.L. Gorostegi.

ARGAZKI ARLOA: Leire Iturbe eta S. Hernandez. **HIZKUNTZA ARDUA:** Juan Andres Argoitia eta M. Aranberri.

PUBUZITATEA: Itziar Albizu eta Belen Ulazia. **Tfnoa:** 943 20 67 76. **AZALEKO ARGAZKIA:** Silbia Hernandez

BANAKETA-ARDUADUNA: Ainhoa Luz. **TIRADA:** 8.050 ale. **INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati).

COPYRIGHT-A: ...eta kitto! **LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92. **ISSN:** 1132 - 1679

("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)



**EIBARKO
UDALA**



**GIPUZKOAKO
FORU
ALDUNDIA**



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZA)**

Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

Matxariatuz-en taillarra

Matxaria auzua hobetzeko eta herriko inguru hori berreskuratzeke asmuarekin Matxariatuz izeneko parte-hartze prozesua zabalik dake Udalak. Horren harira, abenduaren 17rako taillar informatibua antolatu dabe, 19.00etan Portalean. "RB3, Innovacion Urbana Integrada" enpresak gidatzen diharduen prozesuan herritarren ideiak eta proposamenak jasotzen ibilli dira, aurrediagnostikua egitteko asmuarekin.

Taillarrian, bestiak beste, aurrediagnostikuaren emaitzen barri emongo dabe, horren inguruko adostasuna lortu eta gero, urtarrillian eta otsaillian prozesuak emongo dittuan hurrengo pausuak zeintzuk izango diran zihetzen juateko. Prozesuaren inguruko informazio gehiago jaso nahi dabenak info@rb3innovacion.com helbidera idazteko edo 943015644 telefono zenbakira deitzeko aukeria dake.




Gabonetako argixak martxan

Aurreko asteko eguen arratsaldian ixotu zittuen kaliak apaintzeko ipiñittako Gabonetako argixak. Udalak eta Eibar Merkataritza Gune Irekiak 50.000 euro ordainduko dittue Errege eguna pasau arte argixak egunero martxan ipintzeko. Eguena argixak martxan ipintzeko lehen eguna izatiagaittik Eibarko Bizikleta Plazan Eibar foball taldeko ordezkariaren partehartzia euki eban ekitaldi berezixa egiñ eben eta, bestiak beste, DJ batek umiendako musikia eskindu eban eta txokolatia musutruk banatu zetsen.

3D inprimatze ikastarokeri diplomak

Armeria Eskolako Ikasle Ohien Elkartekuak martitzenian banatu zittuen Eibarko "Maker" komunitadeko lehen 3D inprimatze-ikastaroko diplomak. Udalak babestutako kursua 20 ordukua izan da eta amaittu daben ikasliak alkatiaren eskutik jaso zittuen agirixak. Ekitaldixan Jose Luis Novoa zuzendarixak eta Miguel de los Toyos alkatiak "horrelakuak eskolarako ezeze herrixandako positibuak" dirala azpimarratu eben.



Hillaren 17rako antolatu dabe taillar informatibua. SILBIA HERNANDEZ

Igogailua ipintzeko biharrak

Bista Eder kalian, Portalea eraikiñaren aldamenian igogailua eraikitzeke biharrak aurrera doiaz eta aste honetan, eguaztenian, garabi haundi bat erabillitta igogailua ipintzen jardun eben. Garabixak errepidiaren zatirik haundiña betetzen dau eta, horregaittik, biharrak amaittu eta garabixa kendu bittartian, bidia trafikuari moztuta egongo da.



Caritas erropen premiñian

Eibarko boluntarix talde batek roperua ipiñi dau martxan Caritasen eta hemittareri dei egin nahi detse, etxian erabiltzen ez daben erropa eta oiñetakuak euki ezkeru eureri emotera animatzeko, "batez be negurako erropak". Erropak eta zapatak ezeze mantak,

jaixoberrixendako kumak, aulkixak, kotxe-kapotak... be gustora hartuko leukiez. Zeozer emon nahi dabenak San Andres elizan Caritasekuak daken lokalera juan biharko da (astelehen eta martitzenetan, 09.00etatik 13.00era) edo, bestela, 943202509 telefonora deittu.



Sanandresetan estrenau zittuen eskillarok. SILBIA

Eskillara barrixak martxan

Sanandresetan estrenau zittuen Untzagatik Txaltxa Zelaira bittartian ipiñi dituduen eskillara mekaniko barrixak. Aste honetan azken ikutuak emoten biharrian jardun dabe, baiña edozelan be erabiltzeko moduan dagoz herrixan estali diran lehelengo eskillara zati bixak. Laster, urtia amaittu baiño lehen, barrizatzen diharduen beste zati bixak, Eibarko Txikitotik gora doiazanak be amaittuta eta erabiltzeko moduan egotia aurreikusten dabe.

San Andres kaleko erausketak gertuago

Aste honetan, martitzenian atzera be billeria egiñ eben San Andres pasialekuko 4.eta 5. zenbakixetako bizilagunak eta alkatiak, pegora bixen erausketak prozesuaren gaiñian berba egitteko. Alkatiak oin dala aste batzuk aurreratutakuaren bidetik, bota biharreko etxietan oindiok lau famelixa bizi dira, baiña Udalaren bittartez eurekin lortutako adostasunari esker "laster etxiak hustutzeko moduan" egotia espero dabela azaldu eban alkatiak, bizilagunekin billeria amaittu eta jarraixan emon eban prentsaurrekuan. Hiru famelixendako alokairu sozialak lortu dittue eta, alkatiaren berbetan, "kontratuak siñatuta dagoz. Eta, etxiak hustutzeko prozesua ez blokeatziarren udalak laugarren famelixarekin hitzartutakuari jarraituta, etxia erosteko tramitiak datorren astian bertan egittia aurreikusten dogu".



autuan

BABAJANA SOLIDARIXUA

Eibarko Sozialistak abenduaren 13rako (datorren asteko zapaturako) babajana solidarixua antolatu dabe, iaz egindakua bidetik, batzen daben dirua urten Elikagaixen Bankuari emongo detse. Goizeko 10.30xetatik 14.00xak bittartian Untzagan ipiñiko daben postuan baba-raziñua, sakramentu eta guzti, bost eurotan salgai ipiñiko dabe (etxera eruateko moduko ontzixan).



SUTIEN KONTRAKO SISTEMA

Hamendik gitxira bakarrik bizi diran nagusixendako sutiengkontrako duaneko alarma sistemía abiaraziko dau Udalak, holan Eibarko EH Bildurekin adostutakua beteta. Herrixan bakarrik bizi diran 85-90 urte bittartekueri kartia bialdu detse, zerbitzuaren informaziñuarekin.

eitek
SOLUCIONES TECNOLÓGICAS

Marka onenetakoen Zerbitzu Tekniko onena

www.eitek.net

FM Funeraria-Ehortzetxe
Mugica

EIBAR

Beilatokia
Funeuskadi Eibar:
Otaola, 27

ELGOIBAR

Beilatokia:
SIGMA Industrialdea
(Olasoko hilerriaren ondoan)

Bulegoa Eibarko erdialdean

24 orduko zerbitzu iraunkorra

943 20 19 51 www.funeuskadi.com

Euskadiko Lehen Ehortze Taldea **GRUPO Funeuskadi**

asteko
25
datua

millioi euroko zuzenketak egin detsaz udalak Eusko Jaurilaritzaren 2015eko aurrekontuari; tartian Errebal (500.000 euro), irisgarritasuna (350.000 euro) eta parkiak hobetzeko biharak (1,6 millioi euro) dagoz.



Diego Godoy "Choy" goguan

Atzo Santa Barbara, armagiñen zaindarixaren eguna izan zala aprobetxautu, Armagintzaren Museuak ate irekixen jardunaldixa egiñ eban eta, horrekin batera, museuaren "lagun eta armagin haundixa" izan zan Diego Godoy "Choy" armagiñari omenaldixa egin zetsen. Godoy oin dala gitxi hil da eta famelixakuak bere armetako bat museuari oparitzeko asmua dake.



...eta kitto! 14/XII/5 • 911 zkia.

Arratebideko irisgarritasuna hobetuko dabe

Udalbatzak aho batez onartu barri dau Arratebideko irisgarritasuna hobetzeko EAJ-PNVk aurkeztutako ekimena. Udaleko talde guztiak onartu daben moziñuaren bittartez, "hiru hilleko epian Arratebide eta Milafloreseko irisgarritasuna eta segurtasuna bermatuko dittuan proiektua idazteko" eskatu detse Gipuzkoako Foru Aldundiari. Eva Juez jeltzalien bozeramailliak azaldu dabenez, "auzoko famelixak GI-3950 errepidia zebrabide barrik gurutzatu bihar dabe, horrek dakarren arriskuarekin". Diñuanez, "azkenaldixan auzoko bizilagunen kejak gora egin dabe eta, arazua gertutik ezagutzeko hango bizilagunekin batu giñan. Oin momentuan daken arazorik larrixena,



Markel Olano Eibarrera egindako bisitan, Arratebiden bizi diranekin berba egitteko aukeria euki eben jeltzaliak.

zalantza barik, Eibar Markiñarekin lotzen daben errepidia gurutzatzerakuan daken segurtasun eza da". Markel Olanok Eibarrera egindako bisita aprobetxatuta, Arratebiden bertan, Eibarko jeltzaliak arazuaren barri emon zetsen:

"Olanok arazuari urtenbidia lehenbailehen emoteko premiña ikusi eban eta hurrengo egunian Gipuzkoako Batzar Nagusixetan Arratebideko irisgarritasuna hobetzeko ebazpen proposamena aurkeztu eban".

Dendarixen alkartekuen zozketia

Dendarien Elkartek bezueren artian 1.000 euroko erosketa-txartela banatzeko hillero egitten daben zozketan, azaroko irabazlia M^a Jesus Marin Peñaranda izan da. Zuloagatarren kaleko Guby mutillen jantzidendan erostiarren jaso dau sarixa eta erretatuan irabazlia sarixa dendarixaren eskutik jasotzen agertzen da.

Eraikuntza azoka arrakastatsua

Aurreko asteko eguen eta bariakuan Untzagako karpak hartu eban I. Eraberritze eta Birgaitze Azokia martxa onian jua zan eta egun bixetan jende asko gerturatu zan eraikuntzaren sektoriari lotutako enpresak aurkeztutako eskintza bertatik bertara ezagutzera. Hogeitik gora enpresak hartu eben parte Udalak eta Debegeasak lehelen goz antolatu daben azokan.



Jostailuak batzeko kanpaiña

Eibar-Ermuko Gurutze Gorixak, urteroko martxari jarraituta, aurtun be jostailuak batzeko kanpaiña ipiñi dau martxan, diru premiñan daguazan famelixetako umieri oparitzeko asmuarekin. Baitzen dittuen jostailuak barrixak, erabilli barikuak izan bihar dira eta lagundu nahi dabenak alkartiaren lokalera (Gipuzkoa etorbidera, autopistaren peaje aldamenera) eruan biharko dittu, 10.00etatik 13.00ak bittartian. Informaziño gehixago eskatzeko ermua@cruzroja.es helbidera idatzi edo 943176248 telefonora deittu leike.





Oskar Arantzabal Donostian bizi den gure herriko ekonomialariak Arrate Kultur Elkarteak antolatutako hitzaldia eskainiko du Kultur bertan datorren eguaztenean, hilaren 10ean, 19.00etatik aurrera. Oraingoan, "Azpilkueta ekonomiaren aintzindari" liburua ardatz hartuta, horren inguruan burututako ikerketaren berri emango digu. Juan Zelaia sariaren azken edizioan berak irabazi zuen saiakera arlokoa aipatutako lanarekin eta, horrez gain, Euskal Antzerkizaleen Taldeko partaide ere bada Arantzabal. Hurrengo eguaztenean, hilaren 17an, "Iruñea, izanaren hondamendia" DVDaren proiektzioa eta mahai ingurua eskainiko dira Kulturalean.

OSKAR ARANTZABAL, ekonomilaria:

"Azpilkuetaren ekarpenik sonatuena diruaren teoria kuantitatiboa da"

- Zer du berezia Azpilkueta liburuaren protagonistak, ekonomilaria baino gehiago legelaria eta teologoa izanda, "ekonomiaren aintzindaria" izendatzeko?

Azpimarratu behar da, zoritxarrez, "Doctor Navarrus" oso ezezaguna dela gure artean, nahiz eta herri honen "metafora txiki bat" izan: independentzia galdu, krisi ekonomikoa ezagutu... Badirudi dorain dela bostehun urteko zauriak itxi gabe jarraitzen dutela. Bere ekarpenak lege eta teologia kontuetan mugatuagoak dira, baina ekonomian egindakoak askoz ere interesgarriagoak (eta ezezagunagoak) garatzen ari zen gizarte zientzia berri batean. Pentsa 1776ra arte ez zutela Adam Smith eskoziarra ekonomiaren "aitatzat" jo.

- Sasoi hartako bere iritziak bat datoz gaur egun inguratzen gaituen errealitatearekin? Bere ekarriak non islatzen dira, batez ere?

Guztiz, diru politika eta zerga politikaren arteko oreka aldarrikatzen zuen, Europako Batasunak duen herrentasunetako bat. Dibisen gorabeheren jakitun zen, likideziazatik lehentasunaz, ekonomia politikoaz eta, harriarriena dena, bere garaiko finantza-burubila aurreikusi egin zuen, krisiak errepikatu besterik ez dira egiten. Ekarpenik sonatuena diruaren teoria kuantitatiboa da, munduko banku zentral guztien tresna ezagunena.

- Esana duzu elkarrizketa batean "estatu baten tamaina ideala bost milioi biztanle ingurukoa dela"? Zenbat eta txikiagoa hobea?

Orain dela hiru urte Eibarren bertan emandako hitzaldi baten ardatza izan genuen. Ranking gehienetan tamaina horretakoak dira ongien dabilzanak (Danimarka, Austria, etab.), baina gutxieneko tamaina er-tain batek ere eskalako ekonomiak ematen ditu (pentsioak, inbertsioak, etab.), beraz optimizazio kontu bat besterik ez da, irabazi eta galeren artean. Txikiegia izateak "paradisua fiskal" bihurtzeko arriskua lekarke, Luxenburgon bezalaxe.

- Independentzia ekonomikoaren bidetik, abertzaletasun esportatzailearen falta nabaritzen duzu gurean?

Aurrekoarekin lotuta zetorren, baina badirudi denbora arrazoia ematen ari zaidala: gure esportazioak Espainia eta Frantziara murrizten doazen heinean -datuek halaxe diote- eta urrutiagoko beste merkatu batzuetara areagotzen, mendekotasun koloniala alboratuz goaz eta horrek, herri gisa, askeago egiten gaitu mundu interdependente batean. Alemania edo Japonia moduko herrialdeetan kontzeptu hori oso barneratua dute eta ondo doakie.

Gure esportazioak Espainia eta Frantziara murrizten doazen heinean -datuek halaxe diote- eta urrutiagoko beste merkatu batzuetara areagotzen, mendekotasun koloniala alboratuz goaz

- Ekonomilaria zaren aldetik, zergatik dago hainbeste alde batzuen eta besteen analisiaren artean Euskal Herria independenteak aurrera jo dezakeen edo ez aztertzerakoan?

Gure soziopolitikan heren batek "ezinezkoa" ikusten (edo nahi) du, beste horrenbeste batek guztiz bideragarria dela dio eta hirugarren zatiak zalantzak ditu, nahiz eta aldeko jarrera izan, mantso joan ezker. Eskozian edota Katalunian gertatzen ari diren prozesuek erakusten digute, eskuin zein ezker, hori dela bidearen abiapuntua: "desokupazio mentala" deitu dezakeguna. Ekonomian bainoago politikan dago gakoa. Azpilkueta nafarrak Europako Herrien Konfederazioa aldarrikatu zuen duela bostehun urte eta amaitzear dugun 2014 honetako gertakari askok badirudi, beste behingoz, arrazoia ematen ari zaizkiola.

- Azpilkuetarekin urte biko ikerketa lana egin duzu eta baita Juan Zelaia saiakera saria irabazi. Baduzu esku artean beste lanik, epe laburrean argia ikusi dezakeenik?

Laburrean Eskozia eta Kataluniako prozesuen ikasgaiak aztertuko ditugu talde lanean eta, Euskal Herriatik begiratuta, bizi dugun egoera "semikoloniala". Epe er-tain-luzeagoan animatu naute hain interesgarria den Azpilkuetaren biografia antzerkita eramateko. Gogoko dudana generoa da, Eibarko jardunaldietan txikitzen zaitu bainintzen, nahiz eta saiakeratik oso urruti dagoen.

Abenduaren 3an, asteazkena, Euskararen Nazioarteko Eguna ospatu zuten kalera irten ziren herritarrek. Festa giroan aldarrikatu zuten euskaldunok euskeraz bizitzeko daukagun eskubidea. Kaleko ospakizunak hasi baino lehen, arratsaldeko 18:00etan, pleno berezia izan zen Eibarko udaletxean. Bertan **Eibarko Udalaren euskararen erabilerarako udal ordenantza** onartu zuten herriko alderdi politikoeak.



Esther Kareaga Eibarko Udaleko Euskera eta Kultura burua eta Junkal Txurruka Udaleko euskera teknikariak. ANA AIZPURUA

Eibarko Udalaren euskararen erabilerarako udal ordenantza

“Euskeraz bizitzeko eskubidea bermatzeko pauso bat gehiago”

Joan den urteko Euskararen Egunean Eibarko Udalaren euskararen erabilerarako ordenantza egiteko konpromisoa hartu zuen Eibarko Udalak. Esther Kareaga Udaleko Euskara buruaren esanetan, “joan zen urtean gerturatu zitzaizkigun euskalgintzan lanean diharduten taldeak. Egokia iruditzen zitzaien hainbat urtetan egindako lanari forma ematea, arautzea. Udalak, lehenengo momentutik, bat egin zuten asmo edo intentzio horrekin”. Konpromiso hori hartuta, herenegun izandako udal pleno berezian onartu zen ordenantza. EMUN enpresa ibili da aholkularitza lanetan eta “alberdi guztiekin eta euskalgintzako taldeekin adostu egin dugu hemen jasotzen dena”.

Ordenantzak hainbat alor arautzen ditu: euskararen erabilera udaleko barne funtzionamenduan; euskararen erabilera udaleko kanpo-funtzionamenduan; eta euskararen erabilera udalerrian.

Junkal Txurruka Udaleko euskara teknikariaren ustez, “Eibarko herriak urte askotan egin du lana euskararen normalizazioan, bai Udalak era instituzionalean eta baita herriak ere bere gizarte forma diferenteetan (elkarteak, kultura, kirola, irakaskuntza, euskalgintza...). Guzti horrek prestatu du giroa eta egitura; pentsatu dugu iritsi dela momentua guzti hori arau mailara ekartzeko edo igotzeko. Beste gauza inportantea da 1982ko Euskararen Legeak eta horren ondoren atera diren dekretu diferenteek aukera hori ematen dutela. Hau da, euskararen (elebitasunaren bidetik beti) normalizaziorako aukerak

ematen ditu, eta orain erabiltzen duguna baino euskera gehiago erabiltzeko aukera ere ematen du. Ordenantza egin da marko legala ondo errespetatuta. Inportantea da ordenantza bat edukitzea, badaukagulako egiten dugun horretatik egin dezakegunera tarte bat, erabilerari dagokionean eta eskubideei dagokienean”.

“Hor jasotzen diren arau horiek betetzeko modukoak izatea, aplikagarriak izatea ere kontuan hartu dugu. Eta zentzu baikor batean, hau da, edonorentzako erakargarri izatea nahi dugu. Argi dago denon laguntza, bultzada eta konplizitatea behar dela. Borondatea eta jarrera positiboa ezinbestekoak dira. Ordenantza hitzak berak atzera botatzen du, baina ez dugu horrela ulertu behar. Hau guztiz modu baikorrean hartu behar dugu”, azaldu dute Kareagak eta Txurrukak.

Urte askotako lanaren fruituetako bat

Behin eta berriro argi laga nahi dute ordenantzak daukan garrantzia: “Urte askotan egin diren indar desberdinen emaitzetako bat da. Ordenantza bat garrantzitsua da eta horrek ere garrantzia ematen dio euskerari”.

Ordenantzan jasotzen den guztia betetzen dela ikusteko Euskararen Aholku Batzordea sortuko da. Bertan gizarteko esparru guztietako ordezkariak egongo dira: industria, merkataritza, euskera, kirola, irakaskuntza, alderdi politikoak, sindikatuak... Aholdu Batzordeak ordenantzaren jarraipenerako beharrezkoak diren neurriak proposatu, aztertu eta martxan jarriko ditu.

Junkal Txurrukarentzat “ordenantza pauso bat gehiago da Eibarko herritarren euskeraz bizitzeko aukera bermatzeko. Euskararen Legea 82an atera zen. Gauzak ez dira aldatzen egun batetik bestera. Administrazioa orain dela 30 urte elebarkarra zen, gaztelaniaz funtzionatzen zuen. 30 urte hauetan lortu da administrazioa elebidun izatea. Azken helburua Eibarren bizi den euskaldun batek euskeraz bizitzeko daukan eskubide hori bermatzea da. Azkeneko bi edo hiru urteetan demanda bat somatu dugu. Herritarrak kezatu egiten dira ondo atenditzen ez bazaie euskeraz edo kalean gauzak erdara hutsean ikusten dituztenean. Orain dela 10 urte ia inor ez zen kezaketen. Herritarrak poliki-poliki jabetzen ari da eskubidea daukala euskeraz bizitzeko. Udalean ere bizi izan dugu azkeneko hiru-lau urteotan langileen aldetik beste jabetze puntu bat hizkuntzaren gestioari buruz. Herritarren demanda hori sortzen joan den neurrian, langileek eta politikoeak ere beste kontzientzia maila bat lortu dute”.

Eibarren euskararen erabilera %20-25 tartean gabilta. Iau euskaldunetik batek hitzegiten du euskeraz. “Orain dela gutxi beste herrietako emaitzak izan ditugu eta, egia esan, bai EAEn bai Eibarren gertatzen den erabilera kurba antzerakoa da. Zentzu horretan, ordenantza baten zabalkundeak balio badu euskaldunen kontzientzia pizteko eta euskararen erabilera handitzeko, primeran; hori da helburua azken helburua, euskararen normalizazioa”, azaldu du Euskara Saileko buruak.



Euskeriak 365 egun Eibarren

Goiburu hori izan du aurtengo Euskeraren Eguna Eibarren, horixe izan delako, hain justu, eibartarrok aldarrikatu nahi izan duguna; euskeraren eguna ez dela egun bateko kontua, euskera urte osoan, egunero erabili behar dugula, hain zuzen ere. Azken asteotan buru-belarri jardun dute beharrean herriko euskalgintza osatzen duten taldeek, eguazteneko ekitaldiak pentsatu, antolatu eta prestatzeko.

Zeruari begira azken momentura arte, arratsaldeko lehen orduan xirimiria, zirt edo zart egitea erabaki behar... Antolatzaileen gogoak eta ilusioak eguraldi ilunari aurrea hartu zioten, eta di-da batean dozenaka lagun basoak eta kandelak antolatzen, letrak prestatzen, bertsoa eta manifestua nola irakurri antolatzen... 1.500

kandela eta beste horrenbeste baso, 24 letra erraldoi osatzeko. 18.00etan Euskeraren Ordeantzak onartzeko pleno berezia egin zen udal-etxean, eta 19.00etan, deialdiarekin bat eginez, ehundaka eibartar kalejiran irteteko prest, esku artean kandelak, linternak... DBHko lau ikasleek egun horretarako propio egindako bertsoa eta manifestua irakurri zituzten, eta handik, soinujoleak lagunduta, Untzagara kalejiran. Harmailen aldeko plazan, letrak prest, "Euskeriak 365 egun Eibarren", kandelaz argizatuta, eta han ere, jai giroan, euskeraren aldeko aldarrikapena, musikak eta dantzak lagunduta. Suaren epeltasunak, euskeraren goxotasunak, eibartarrek elkartu zituen beste behin ere, euskeraz bizi nahi dugula aldarrikatzeko.

ARGAZKIAK: SILBIA HERNANDEZ



**Pirritx, Porrotx
eta Marritots**
Berriro Eibarren
"TXO, MIKMAK TXIKIA"
LAN BERRIAREKIN

abenduak 13
ZAPATUA
16.30 eta 19.00

abenduak 14
DOMEKA
16.00 eta 18.30

SARRERAK SALGAI (8'00 euro)
El Tío Palancas (JUAN GISASOLA)
Eneritz argazkidenda (URKIZU)
Gozoki (BIDEBARRIETA ETA SOSTOATARRIN)

Aurreko asteburuan, azaroaren 29tik abenduaren 1era bitartean Bilbao Exhibition Centre-k "Expocosmetica Bilbao, Beauty, Wellness & Fashion" delakoa, edertasun integralari eskainitako Euskadiko lehen azoka hartu zuen eta, horren barruan egin zen Euskadiko Jai-makillaje II Txapelketan Maider Carrasco eibartarrak bigarren saria jaso zuen.

- Aurretik horrelako txapelketan ibilitakoa zara?

Iaz amaitu nuen estetika ikasten eta, irakasleek eurek bideratuta, txapelketaren lehen edizioan parte hartzen egon nintzen eta hirugarren saria eman zidaten. Hori ikusita Madrilan egin zen beste txapelketa batera joatera animatu nintzen, baina han ez nuen saririk lortu. Hala ere, Euskadiko Jai-makillaje Txapelketaren bigarren edizioan parte hartzeko izena eman nuen eta oraingoan bigarren saria eskuratu dut. Lehiaketan lortutakoarekin oso pozik nago.

- Nolakoa da lehiaketan aurkeztu zenuen makillajea? Nola definituko zenuke?

Deigarria dela esango nuke. Jaietarako makillaje txapelketetan denetarik ikusten da. Makillaje kontuetan, beste edozein arlotan gertatzen den moduan, bakoitzak bere gustua dauka eta, horren arabera, hamaika modutan makillatzeko aukera dago. Madrilgo lehiaketan, adibidez, fantasiako makillajeak egin behar ziren eta, horrelakoetan, zenbat eta makillaje gehiago erabili, orduan eta hobeto. Baina edertasun lehiaketa batean kontrako efektua bilatzen dute. Garrantzitsuena norberaren aurpegiari ondo-

en ematen dion makillajea erabiltzea da.

- Makillatzeko moduak aurpegiaren arabera aldatzen doaz, beraz...


Erabat. Makillatzen den modelooren aurpegiak azken emaitzaren %70 baldintzatzen du. Eta bekainak ere oso garrantzitsuak dira. Ni oso modelo ederrarekin joan nintzen lehiaketara.

- Zer da zailagoa, oso deigarria den makillajea egitea ala, makillatu arren, naturalaren itxura lortzea?

Teknika menperatuz gero, berdin dio bata ala bestea egin, baina aukeran zirkoa eta fantasia gustatzen zaizkit gehien. Zailena ondo makillatuta joatea da. Ermuko nire estetika zentruan norberak bere burua makillatzen ikasteko klaseak ematen ditut eta, kasu batzuetan, etxetik ekarri duten estiloa goitik behera aldatu behar izaten diet.

- Badago makillatzea gustatuko litzaizukeen pertsonaiaren bat?

Ez dut sekula horretan pentsatu. Makillajearen bakoitzak bere aurpegiaren ezaugarrietara eta norberaren estilora moldatzea da garrantzitsuena. Hortik abiatuta, zenbat eta gehiagotan praktikatu, orduan eta errazagoa egiten da.



Maidar Carrasco
(MAKILLATZAILEA)

**"FANTASIAZKO
MAKILLAJEAK
ditut gustokoen"**

- Hortzak zuzendu
- Artikulazioko minak tratatu
- Piorrea prebenitu
- Kirol errendimendua hobetu

AHO ETA GORPUTZEKO
OREKA BERRESKURATU

Arragueta, 2-bis B (behea c)
Tel. 943 048 773
orekahn@yahoo.es



Asier Serranoren 3 diskoak



"Ez Esan Inori"



"Gerrari bai"



"Hoteleko kantuar"

10 eurotan ...eta hitto-ko bulegoetan

Ainara Lavado (...eta kitto! Euskara Elkarte):

“Gazteen artean euskeraren erabilera igo nahi dugu”

...eta kitto! Euskara Elkartearen misioa euskararen erabilera sustatzea da. Horretarako hainbat jarduera eta programa garatzen ditu urtean zehar. Azken 15 urtetan, Eibarko Udalak hala eskatuta, euskararen erabilerearen kale neurketa ere burutzen du ...eta kitto!k, urria erdialdean, urtero-urtero. 2013an 18 eta 28 urte bitarteko gazteen arteko euskeraren erabilpena aztertu zen. Ikerketa hau zuzendu zuen ...eta kitto! Euskara Elkarteako Normalizazio arduraduna den Ainara Lavadok eman digu guzti honen berri.

- 2013an Eibarko gazteen artean euskeraren erabilera aztertu zen. Zein izan zen gazteak aukeratzearren arrazoia?

Kale neurketetako datuek argi adierazten digute euskeraren erabileran adina jauzi bat dela eta une estrategikoa dela gaztaroa. Umeen erabilera nahiko altua izatetik gazteen erabilera ertain-baxua izatera pasatzen da, helduen erabilera baxura hurbilduz. Gaitasuna baldin badago, zergatik ez dugu hitz egiten? Euskara bizitzeko funtzio guztiak betetzeko gai da? Norekin hitz egiten dute gazteek euskaraz? Non? Zenbat? Guzti honi erantzun nahian ikerketa egin beharra ikusi genuen. Gazteak aukeratu izana, ez da kasualitatea izan, adin talde erabat estrategikoa dela uste dugu. Izan ere, etorkizuneko helduak izango diren ebidentzia alde batera lagata, erabilera esparru gehien ikutzen dituen adin-taldea dela esan dezakegu; hezkuntza, aisialdia, lan mundua, familia, sare sozialak... Horregatik, esparru guzti hauek aztertu ahal izateko, gaztaroa modu zabalean ulertzea erabaki dugu, 18- 28 urte bitarteko gazteengan fijatuz.

Baina gure helburua ez da egoeraren azterketan gelditzea, baizik eta hutsuneak/ beharrak detektatzearekin batera eragi-

tea. Guzti hori dela eta, datorren ostegunean, hilaren 11n, arratsaldeko 7etan lan bilera irekia egingo dugu ...eta kitto!-n eta eragile bakoitzak proposamenak egin eta lantzeko aukera izango du. ...eta kitto!-k koordinazio eta bidelagun lana egingo luke, baina elkarlana da bilatzen duguna, gazteen, talde eta eragile desberdinen arteko elkarlana.

- Zeintzuk izan dira ikerketaren ondorio nagusiak? Nolako balorazioa egin daiteke?

Generoak eragin nabarmena du erabileran: emakumezkoek gehiago erabiltzen dutelako. Bestalde, lagunartean ematen da erabilerarik baxuena, hau da, solaskide ugari eta testuinguru ez-formalean daudenean. Lan munduan, ahozkoan, erabilerarik altuena jaso dugu. Gaitasunari da-

Lagunartean ematen da euskeraren erabilerarik baxuena

Kuadriletako erabilera %16'1etik %20ra igoztekoa nahiko genuke hurrengo 3 urteetan



Datorren astean egingo den bileran parte hartzeko gonbitea luzatu nahi du Ainarak.

gokionez, berriz, heren bat atzean geratzen ari da. Azkenik, bikotearekin euskaraz beti edo ia beti euskaraz aritzen direnak lagunartekoaren bikoitza dira, igoera nabarmena.

Oso kezagarria iruditzen zaigu, kuadrillean edo lagunartean daudenean %16,1-k besterik ez duela euskara erabiltzen. Bestalde, gaitasunari begira, kezagarria da heren bat atzean geratzen ari dela ikustea, hortan ere lan handia dugu egiteko.

- Datu horiek ezagututa, hemendik aurrera zer egingo da?

Kuadriletako erabilera %16,1etik %20ra igoztekoa nahiko genuke, hiru urteko plana diseinatzea nahi dugu. Baina ikerketan galdetu zaien horiei beraiei galdetu nahiko genieke oraingoan zer egin dezakegun, noiz eta nola...

Datorren osteguneko bileran hori lantzea nahi dugu. Ez dugu nahi datu eta kopuruetan gelditzea, baizik eta hemendik aurrera zer egin dezakegun pentsatu eta lanean hastea. Lan bilera horretara 18-28 urte bitarteko gazteak gonbidatu nahi ditugu eta baita gazteekin lan egiten duten eragile guztiak ere (kirol taldeak, sindikatuek, kultur taldeak, jai batzordeak...). Denon artean askoz errezagoa izango baita aurrera egin eta gauzak aldatzea.



2.000 euroko Gabonetako OTARRA

46''ko TELEBISTA eta gabonetako produktuak dituen otarra

GAUR (19.30-21.00)
BIHAR (13.00-14.00)
KALEAN EROSTEKO AUKERA

SALMENTA LEKUAK:
 Bolintxo OKINDEGIA
 ...ETA KITTO! (Urkizu, 11)

1 €



ARGAZKIAK. LEIRE ITURBE

Euriak ez zuen San Andres eguna zapuztu

Aurtengo San Andres eguna, iazkoa bezala, euripean igaro genuen eta bezperan Jaixak Herrixak Herrixandakok antolatutako kalejira, herri-bazkari, erromeria eta bestelakoak ere zaparrada artean egin behar izan zituzten. Hala ere, eta azokako 70 postuak babeten zituzten karpei esker, San Andres Azokak bisitari eta erosle ugari erakarri zituen goizean goizetik. Errebalean, Eibarko baserrietatik erakusketarako jaitzitateko animaliak ere aterpean babestuta egon ziren, baina aizkolariak aldamenen eta euritik babesteko aukera barik jokatzen behar izan zuten Gipuzkoa Poliklinika Bikoteka Aizkolari Txapelketa: helduen artean Ernesto Ezpeleta Bihurri eta Mujika nagusitu ziren eta gazteetan, berriz, Etxeberria eta Gisasola.

Eguerdian Narbaiza eta Gorrotxategi bertsolariek, Jainaga eta Narbaiza trikitilariek eta soinu ikasleen kalejirak girotu zuten Untzaga, Kezka dantza taldearen eskutik Plazara Dantzara erromeria hasi bitartean. Eta horren ostean, San Andres azokako, pintxo txapelketaren eta kartel lehiaketaren irabazleei sariak banatuta agurtu zuten jaiak: Eibarko baserrietan Gisasolak eraman zuen saria; barazkie-tan, saria Peio Rubiok, Alejandro Arrietak eta Ezoz Etxebarriak jaso zuten, hurrenez hurren; frutetan, Tomas Maiorak irabazi zuen; ezti saltzaileen artean, irabazleak Aitor Otegi eta Eugenio Elorza izan ziren; gazta irabazleak Elgoibarko Mausitxa baserria eta Baztarrika izan ziren; eta ogietan, Maite Leanizbarutia eta Arantza Astigarraga saritu zituzten.





ARGAZIAK. LEIRE ITURBE



Gasteizen ere ospatzen

Hamasei urte dira dagoeneko Gasteizen bizi den Eibarko ordezkaritzak San Andres afaria egiten duela. Oraingoan ezustea izan zuten gainera, Josu Arizagak eta Kike Gisasolak ospatzen duten "Amanecer" bikoteak bisitatu zituen-eta Eibartik joanda. Tartea egon zen ohiko zozketa egiteko ere, Eibarko Udalak eta Eibar Foball Taldeak eskainitako opariekin.

Eibartarrak Donostiako Maratoian

Gure herriko 12 atleta helmugaratu ziren aurreko domekan Donostian jokatutako maratoian, beste hamahiruk erdi-maratoia amaitu zuten eta bik 10 kilometroko proba burutu zuten. Aipatutako probetan, guztira 6.400 atletek hartu zuten parte: 3.600 maratoian, 1.800 erdi-maratoian eta 1.000 hamar kilometroko lasterketan. 27 eibartar horien artean, emakume bakarra izan zen: Lourdes Iriarte. Pello Osoro, bestalde, onenen artean izan zen 10 kilometrokoan, azkenean 13. postuan sailkatuz.



Edu Uribe eta Liher Prieto herriko ordezkari onenen artean izan ziren. Uribek datorren urtean Elgoibarren egingo den Euskal Eskola Publikoaren jaiaren kamiseta darama.

MARATOIA

592	Eduardo Uribe	3h07'17"
638	Javier Varona	3h08'09"
815	Liher Prieto	3h14'02"
844	Xabier Arrieta	3h14'23"
879	Fermin Murillo	3h16'08"
1.337	David Arias	3h29'29"
1.426	Enrique Zialzeta	3h30'58"
1.469	Aitor Elduaian	3h32'19"
1.591	Juan Luis Azkune	3h34'38"
1.715	Enrike Acuña	3h36'45"
1.818	Iñaki Zubiaurre	3h40'52"
2.705	Lourdes Iriarte	4h15'58"

ERDI-MARATOIA

73	Iñigo Trokaola	1h20'59"
277	Igor Gomez	1h30'08"
294	Iñaki Serrano	1h30'50"
304	Imanol Lahidalga	1h31'07"
380	Asier Serrano	1h34'14"
465	Felix Agirregomezkorta	1h35'24"
476	Jon Zubia	1h33'28"
635	Agustin Redero	1h40'09"
839	Madariaga Gallastegi	1h44'44"
901	Ivan Aldalur	1h48'54"
915	Roberto Gallego	1h48'12"
1.057	Josu Hernando	1h50'41"
1.058	Jose Ignacio Telleria	1h48'54"

10 km

13	Pello Osoro	33'21"
96	Raul Fernandez	39'41"



Euskadiko IV. Golf P&P txapelketa Eibarrera

Juan Luis Tueros Eibar Golf Pitch & Putt taldeko golfariak, Luis Arregi arrasatearrarekin bikotea eginez, irabazi zuen asteburuan bikotekako Euskadiko golf P&P txapelketa bere laugarren edizioan. Oñatiko Ireloreko zelaietan jokatu zen probako handicap-aren irabazleen saria eta garailek orain dela gutxi zendutako Manu Fernandezi eskaini diote garaipena, "gure herriko taldeko presidente eta sortzailea izan zela gogoratuz".

Defentsa pertsonaleko sei gerriko beltz berri

Julen Ramon, Nekane Muguruza, Eneko Lores, Garikoitz eta Juan Ramon Del Barrio eta Aitor Vilalba Kalamuako kirolariak defentsa pertsonaleko gerriko beltza eskuratu zuten aurreko asteburuan Arrasateko Musakola kiroldegian egindako azterketan. Horrela Julio Gallego eta Manu Agirrerekin egin dute bat gerriko horretan; azken bi horiek Madrilera joango dira hurrengo astean judoko 6., 7. eta 8. dan-a lortzeko ikastarora.

Brontzezko domina bi Gasteizen

Gasteizeko Arriaga kiroldegian jokatutako senior mailako Euskadiko txapelketan Kalamuako judoka bi eta beste bi epaile izan ziren. Gallego eta Agirre justizia egiten jardun zuten moduan, Josu Olmosek eta Mikel Marinek brontzezko domina lortu zuten eta baita Espainiako txapelketarako fase sektorean parte hartzeko txartela.



Somos Eibar Eskubaloia lider bost puntuko aldearekin



Ez zuten neurketa erraza izan Fernando Fernandezek mutilek Ford Mugarri Arrasateren kontra Ipuruan jokatutakoa. Azken unera arte borrokaturia, talde bietan defentsa lan bikaina... eta 45. minutura arte aurrea ezin harturik ibili ziren eibartarrak. Atsedenaldira ere 8-10 atzetik joan ziren Somosekoak, azkenean 21-19 irabazteko. Astelehenean berriro izango dira aurrez-aurre talde biak Euskadiko Kopako partiduan. Bezperan, dena dela, ligako partidua jokatuko du Somos Eibarrek Trapagararen kan-tan: 12. garaipenaren bila joango da.

Urteko zozketak Ipuruan eta Unben

Hilaren 15ean toki bietako instalazioen urteko zozketa egingo da. Ipurua kiroldegiko prentsa gelak hartuko ditu, 19.00etan, Unben jokatu beharreko tenisa eta foballa eta Ipurua kiroldegiko squash-a eta areto-foballa; eta ordu laurden geroago, 19.15etan, frontoiaren zozketa. Egun berean, Unbe kirolguneko bilera gelan padeleko pisten urteko zozketa egingo da 20.00etan.

Errugbilariek zaleen animoak beharko dituzte bihar Unben

Eibar Rugby Taldeak galdu egin zuen azken jardunaldian ere, oraingoan Donostian Bera-Berarekin (17-9) eta azken postuetan sartuta jarraitzen du, maila ez galtzeko borrokan. Gaizka Arrizabalagak gauzatutako zigor-kolpeari esker, markagailuak 0-3koa erakusten zuen atsedendian, baina bigarren zatian aurkarien ordezkoek Eibarkoek baino maila hobea erakutsi zuten eta horrek erabaki zuen neurket



Bihar eguerdian Hierros Anetxek Uribealdea hartuko du.

Bihar eibartarrek Uribealdea hartuko dute Unben eguerdiko 12.00etan: aukera polita zaletuentzat taldeari laguntzeko garaipena lortzen.

Bi partidu lau egunetan Eibarrentzat

Gaur bertan 20.00etan jokatu dute Garitanoren mutilek denboraldi honetako Kopa txapelketako lehen partidua. Getafe dute aurkari eta Madrilen izango dute joanekeo partidua, 20.00etan hasita. Astelehenean, bestalde, arratsaldeko 17.00etan Almeria izango dugu bisitari Ipuruan, liga amaierarako aurkari zuzena izan daitekeen taldea eta, horregatik, jokoan dauden puntuak baliagarriak dira oso talde bientzat. Klubak partidu horretarako eta Getaferen aurkako itzulerarako sarrera paketea lortzeko au



kera eman du, sarrera biak erosita %40ko deskontua eskainiz.

Hausnarketa Estrategikorako Prozesua

Martitzenean IK4/Teknikerren Eibar Foball Taldeak Hausnarketa Estrategikorako Prozesua aurkeztu zuen, 2017-ra arte klubaren gobernu gida izango dena. Prozesu horrekin klubak telebista eskubideetatik jasotzen duen diruarekiko dependentzia murrizten ahalginduko da eta, aldi berean, kirol, gizarte eta ekonomia arloko agenteekin bilduko da. Aurkezpenean, Alex Aranzabal presidentearekin, Alejandro Bengoa, Josu Ugarte, Juanjo Alvarez, Mikel Larrañaga eta Patxi Mutiloa izan ziren.

Eibarko jokalariek eta teknikoez bat egin zuten Euskararen Egunarekin.



Xala eta Zubieta aurkariak izango dira.

Pilota partiduak Astelenan domekan

Hiru astetan minduta egon eta gero, Xala kantxetara buelattuko da Katedralean. Partidu nagusia jokatu du, Rezusta bergararra lagun duela, eta Altuna III.ak eta Zubietak osatutako bikotea izango dute aurrean. Domekako jaialdia hasteko, Aritz Lasak eta Merinok Mendizabal III.a eta Cecilio izango dituzte aurrean, nor baino nor. Eta amaitzeko, Apezetxea-Larrinaga eta Gorka-Urruzola bikoteek neurtuko dituzte indarrak.

Areto-foballean garaile

Concepto Egilek 4-0 irabazi zion Segorberri 2. B mailako partiduan, Rafaren bi golekin eta Asierren eta Alexen banarekin. Baina Debabarreneko areto-foballeko talde nagusiak garaipenera ohituta bagaitu ere, oraingoan harrobiko taldeek bat egin dute berekin eta euren partiduak irabazi dituzte: horrela, jubenetan Cafeteria King-Kong-ek 8-5 garaitu zuen Zarautz, eta infantiletan Sukiak 3-8 irabazi zuen Samaniego Orixeri egindako bisitan.

Karate klaseak Orbea kiroldegian

Eibarko Kirol Patronatoak Gabonetako opari gisa karate ikastaroa antolatu du. Klaseak astelehen eta eguaztenetan emango dira, 17.00etan hasi eta 17.50etan amaitzeko. Eskaintzak plaza mugatuak ditu eta bakarrik Kirol Patronatoaren abonatuendako izango da. Interesatuak Orbeako instalazioetatik pasatu daitezke.

"Aurre egin!" eta "Sokak" sarituta Eibar Beldur Barik jaialdian

Aurreko asteko barixakuan Portalean egin zen Eibar Beldur Barik jaialdian banatu zituzten herri mailako sariak: 12/17 urtekoen kategorian, saria "Aurre egin!" (Naia Saez, Eider Clavel, Malen Txurruka, Elene Gisasola, Elene Varela) lanak jaso zuen eta 18/26 urtekoen artean, berriz, "Sokak" (Marina Diez Arrizabalaga, Nerea Armero Garzon) saritu zuten. Aurten Euskal Autonomia Erkidego mailako lehiaketara

Eibartik sei lan aurkeztu dituzte. Saritutako bi horiekin batera, 12/17 urtekoen kategorian "Matxismoaren kontrako neskak" (Maddi Beraza, Irati Marfull, Irati Bazkaran, Malen Esparza); eta 18/26 urte bitarteko mailan, berriz, "Esnatu" (Miren Oteiza, Garazi Urzuriaga, Irati Arriola), "Itotzen" (Dani Ladrera, Irati Argomaniz, Marina Berraondo, Uxue Calvo, Maider Gil, Unai Ruiz, Garazi Cosano, Asier Perez) eta



Aurten EAEko mailako lehiaketara sei lan aurkeztu dituzte Eibartik. SILBIA HERNANDEZ

"More-More... & More!" (Nerea Armero, Nahia Fernandez). Jaialdian, Maite Lorenzok olerkia irakurri eta gero sei

lanak proiektatu zituzten eta, amaieran, irabazleei sariak eta beste partehartzaileei opariak banatu zizkieten.



"Marea baja" izenburuko erakusketan Rivasek bere lanik berrienak erakutsiko ditu.

Begoña Rivasen argazkiak Portalean hilaren 28ra arte

Gaurtik aurrera eta abenduaren 28ra arte Begoña Rivas eibartarraren "Marea Baja" erakusketa hartuko du Portaleko erakusketa aretoak. Madrilen bizi den artistak urteak daramatza argazkilaritza lantzen.

Nueva Yorken ikasi zuen eta, besteak beste, Douglas Kikrland argazkilaria ezagunak gidatutako tailer batean parte hartu zuen. Handik bueltatu zenean, berehala ekin zien argazkigintzari lotutako lanei:

hasieran Arte Garaikidearen Museoko argazkilaritza artxiboa egituratzeaz arduratu zen eta, hori amaitzean, 1988an prentsa grafikoan kolaboratzaile lanak egiten hasi zen. Handik urtebetera El Mundo egunkarian argazkilaria moduan beharrean hasi zen eta handik denbora batera argazkilaritza atalaren buru izendatu zuten. Urteotan proiektu asko izan du eskuartean eta Portalera bere lanik berrienarekin dator.

Esperanza Zabalaren margoak

Gaur 19.00etan Esperanza Zabalak erakusketa inauguratuko du Topalekuan. Eibarko artistaren margolanak abenduaren 28ra arte egongo dira ikusgai, ohiko ordutegian: lanegunetan, 19.00etatik 21.00etara eta asteburu eta jai egunetan, berriz, 12.00etatik 14.00etara eta 19.00etatik 21.00etara.



Boluntarioritza taula gainean

Detritus Teatrus eta Pikor Teatro taldeek "¿Algun voluntario? ¿Alguna voluntaria?" antzezlan eskainiko dute Coliseoan datorren martitzenean (hilaren 9an), 19.00etatik aurrera. Herritarrei eta bereziki nagusiei boluntario modura jardutearen onurak azaltzeko pentsatutako lana da eta Eusko Jaurlaritzaren Enplegu

eta Gizarte Gaietarako Sailaren babesa dauka, Borondatezko hiru Euskal Agentzien, Borondatezko Euskal Kontseiluen eta Vitoria-Gasteizeko Udalaren kolaborazioarekin. Belen Nevadok zuzenduta, Txeles Argudo eta Raul Camino antzezleek jardungo dute taula gainean eta sarrerak euro bi balio du.

Urriko iraultzari buruzko liburua aurkeztuko dute hilaren 11n

Aurten 80 urte bete ditu 1934ko Urriko Iraultzak eta orduko gertaerak Euskal Herrian izan zuen eraginari buruzko liburua kaleratu du Jesus Gutierrez eibartarrak, Juan Ramon Garai eta Josu



Jesus Gutierrezekin jardun dute Juan Ramon Garaik eta Josu Txuekak liburua egiten.

Txuekarekin elkarlanean. Liburu hori Portalean aurkeztuko dute datorren astelehen egunean, hilaren 11n, arratsaldeko 19.00etan. Hiru historialari lanak "Octubre de 1934 en Euskal Herria" izenburua du eta aurretik, hilaren 7an, domekan, aurkeztuko da Durangoko Azokan.

Sanchez-Vallejok militantzia politikoa aztertu du azken liburuan

Juan Sanchez-Vallejok "¡Madre, quiero cambiar el mundo!" liburua aurkeztuko du datorren eguaztenean, hilaren 10ean, Portalean 19.30etan hasiko den ekitaldian. Lan horretan militantzia politikoa azterketa psiko-soziala egin du Eibarko sendagile psikiatrak, berak azken berrogei urteetan lehen pertsona bizitakoaren bitartek, "beti ere ezkerrekin izan duen konpromiso politikotik" begiratuta. 2003an "La vida mala" liburua kaleratu zuenetik, osasuna eta gaixotasuna ardatz hartuta beste hainbat lan argitaratu ditu urteotan, "Tierra adentro" tartean.



laburrak

ESTHER GALARZA

Astelehenaz geroztik eta abenduaren 14ra arte Esther Galarza Berasuetaren erakusketa Hondarribian ikusteko aukera izango da (Damarri kaleko Otxazki aretoan).



"ATXIA MOTXIA" SALGAI

Patxin eta Potxin pailazoek "Atxia Motxia. Eibarko umien kuadernua", Ego Ibarra batzordeak argitaratu duen lana aurkeztu zuten aurreko barixakuan Coliseoan. Inprentan izandako arazoengatik liburua egun horretan salgai ipintzea ezinezkoa izan zen arren, eguaztenean geroztik Iraolagoitia (Bidebarrieta) eta Gisasola (Calbeton) liburu-dendetan 4 eurotan eros daiteke (aurkezpen ekitaldira joandakoek, bonoa aurkeztuta, euro bi ordaindu beharko dituzte).

8.150 ALE, 858 BAZKIDE

...eta kitto!
ko
bazkide izan nahi dut

...eta kitto! Euskara Elkarte
Urkizu 11, solairuartera. EIBAR. Tel.: 943 20 09 18
elkarte@etakitto.com

Izen-abizenak: _____
Helbidea: _____ Herria: _____
Telefonoa: _____ e-maila: _____
Lanbidea: _____ Jaiotze data: _____
Kontu zenbakia (20 digito): _____

urteko kuota

- 16 urtetik behera
5 euro
- Lanean dihardut
45 euro
- Langabea, ikaslea,
jubilatua, etxekoandrea
15 euro
- Borondatez, diru
gehiago eman nahi dut
..... **euro**



Miren Agur Meabe Portalean izan zen

Idazle lekeitiarrak "Kristalezko begi bat" liburuaren inguruan jardun zuen, ...eta kitto!-k eta Udal Liburutegiak elkarlanean antolatzen duten Harixa Emoten literatur saioan. Horixe izan da aurtengo azkeneko liburua, baina ikasturtean izango da besterik. Urtarrilaren 7an, eguaztena, Pello Lizarralderen "Sargori" liburuaren txanda izango da.

Dantza ikuskizuna gaur Coliseoan

Dantza konpainiak "Kameleioia" ("Chameleon"), Itzik Galili koreografoak taldearentzat sortutako pieza eskainiko du gaur 20.30etan Coliseoan (8 euro). Ikuskizunean Lionel Ah-Sou, Ane Anza, Mirjam Berg, Garazi Etxaburu, Fem Rosa Has, Alicia Navas, Einar Nikkerva, Jeffrey Schoenaers, Marina Scotto, Egoitz Segura, Beñat Urretabizkaia eta Martxel Rodriguez (Mugi) dantzariak hartuko dute parte.



"Viaje a ninguna parte" antzezlan


Datorren asteko barixakuan Fernando Fernan-Gomezen "Viaje a ninguna parte" lana eskainiko du Sarabela Teatrok Coliseoan, antzerkirako moldatuta, 20.30etan (sarrerak 12 eurotan salgai).



Angeles Cuñak zuzenduta, Fernando Dacosta, Fina Calleja, Nate Borrajo, Sabela Gago, Elena Seijo, Josito Porto, Celso Parada eta Jorge Casas antzezleek hartuko dute parte. Ordu eta erdiko iraupena duen lanak orain dela hamarkada batzuk toki batetik bestera ibiltzen ziren aktore komikoen gorabeherak kontatzen ditu, pobrezia nagusi zen sasoiaren publikoaren barrea eragiteko jarduten zuten aktoreen istorioa, alegia.

Aratosteetarako kartel lehiaketa

Udaleko Kultura Batzordeak "Aratosteak Eibarren 2015" kartel lehiaketa deitu du. Aurkezten diren lanetan "Aratosteak Eibarren" esaldia derrigorrez agertu beharko da eta gaia zein kolorea norberaren aukerakoak izango dira. Kartelek 70x50 zm-ko neurria izan beharko dute eta euskarri gogor baten gainean edo formatu digitalizatuan (JPG formatuan, 300 ppp-ko bereizmenarekin) aurkeztu beharko dira, lemapean. Lanak Pegoran entregatzeko azken eguna urtarrilaren 21a izango da. Irabazleak 600 euroko saria jasoko du eta umeentzat beste bi sari emango dituzte (dirurik ez).



Deporreko kartela, AMAIA MUTILOAREN irudiarekin.

Ikastaroko argazkiak ikusgai Deporren

Hilerokoari jarraituta, argazki erakusketen txanda berriak hasi du ibilbidea. Oraingoan Klub Deportiboak eskaintako argazkilaritza ikastaroan parte hartu dutenek euren lanak erakutsiko dituzte Deporren; Portalea tabernan, bestalde, Iñaki Rebolledo eta Pili Palacinen lanak izango dira ikusgai, "Urak dakarrena, urak daroa" leinari jarraituz; eta, azkenik, Juan Antonio Palaciosen irudiek El Ambigu tabernako hormak apainduko dituzte.

laztanak emoten...

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.



Zorionak, TELMO Aizpirtarte Martin, haraiñegun etxeko erregiak bi urte egin zittuan-eta. Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, GAIZKA, martitzenian bost urte beteko dozulako. Famelixa guztiaren eta, batez be, arreba Alaitzen partez



Zorionak, JUNE, hillaren 10ian zortzi urte beteko dozuz-eta. Muxu haundi bat famelixako guztion partez.



Zorionak, AITOR!!!, 9xan lau urte egingo dozuz-eta. Muxu potolua famelixa guztiaren eta, batez be, Alaine, Irea eta Anerren partez.



Zorionak, AINHOA Egurrola, atzo bost urte egin zenduaz-eta. Muxu haundi bat gure printzesarentzat etxekuen partez.



Zorionak, MARTIN Elortza!, etzi bost urte eder beteko dozuz-eta. Patxo haundi bat famelixa guztiaren eta Helenaren partez.



Dagoeneko urtebete, sorgintxo! Jarraitu beti bezain dibertigarri eta alai, JONE. Zorionak etxekuen partez.



Zorionak, JANIRE, domekan sei urte egingo dozuz-eta. Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, ZALOA, zure 8. urtebetetzian. Famelixa guztiaren eta, batez be, zure anaixa Danelen partez.



Zorionak, OIHAN, zure seigarren urtebetetzian. Muxu haundi bat famelixakuen partez.



Zorionak, LUCIA Parada Perez, martitzenian hirur urte egin zenduaz-eta. Muxu haundi bat, printzesa, aittaren eta amaren partez.



Zorionak, JUNE, domekan bost urte beteko dozulako. Muxu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, amama ARANTZA eta aitxitxa RAMON, zuen urtebetetzietan. Muxu potolua famelixa guztiaren eta, batez be, zuen lau billoba nagusixen eta Naia etxeko sorgintxuaren partez.



Zorionak, amama IZASKUN eta aitxitxa JABIER, zuen urtebetetzietan. Muxu potolua famelixa guztiaren eta, batez be, Danel eta Zaloaren partez.



Zorionak, IRATI, zure hirugarren urtebetetzian. Patxo potolua aitta, ama, NAZRAWIT eta amama Olguitaren partez.

zinea Coliseoan

(1 ARETOAN)
6an: 17.00, 19.45. 22.30
7an: 17.00, 20.00
8an: 20.30

"Serena"

Zuzendaria: Susanne Bier



(2 ARETOAN)
6an: 17.00, 19.45. 22.30
7an: 17.00, 20.00
8an: 20.30

"El juez"

Zuzendaria: David Dobkin



(ANTZOKIAN)
6an: 19.30. 22.30
7an: 20.00
8an: 20.30

"Exodus"

Zuzendaria: Ridley Scott



(ANTZOKIAN)
6an: 17.00
7an: 17.00
8an: 17.00

"Los pingüinos..."

Zuzendaria: Eric Darrell



BARIXAKUA 5**GAZTELEKUA**

16.30. Disparatea. Indianokuan.

DANTZA

20.30. "Kamaleoia" (Dantzaz). 8 euro. Coliseoan.

ZAPATUA 6**GAZTELEKUA**

17.00. Disparatea. Indianokuan.

DOMEKA 7**GAZTELEKUA**

17.00. Play / Wii. Indianokuan.

ASTELEHENA 8**IKASTEN**

10.00. Luzapenak. Portalean.

10.00. "Mirando al cielo" astrologia topaketa, Beheko Tokian.

MARTITZENA 9**IKASTEN**

10.00. "La guerra de sucesión española" hitzaldia, Urko Barrosen eskutik. Armeria Eskolan.

JOSKINTZA TAILERRA

17.00 eta 18.30. Portalean.

ANTZERKIA

19.00. "¿Algun voluntario? ¿Alguna voluntaria?" (Detritus Teatru-Pikor Teatro). Euro bi. Coliseoan.

EGUAZTENA 10**IKASTEN**

11.00. Luzapenak. Portalean.

10.15. Mendi ibilaldia: San Prudentzio (Oñati). Autobusaren irteera Ego Gaietik (Urkizutik, 10.20etan).

HITZALDI-TERTULIA

19.00. "Azpilkueta ekonomiaren aitzindari", Oskar Arantzabalen ikerketa-lanari buruzko hitzaldi-tertulia. Arrate Kultur Elkartean.

EIBARKO KANTUZALEAK

19.00. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokalean.

LIBURU AURKEZPENA

19.30. "Madre, quiero cambiar el mundo!" liburuaren aurkezpena, Juan Sanchez-Vallejo egilearen eskutik. Portalean.

EGUENA 11**IKASTEN**

10.00. "Vivir la vida con plenitud" hitzaldia, Elena Iraolagoitiaren eskutik. Armeria Eskolan.

LIBURU AURKEZPENA

19.00. "Octubre de 1934 en Euskal Herria" liburuaren aurkezpena, Juan Ramon Garai, Jesus Gutierrez eta Josu Txueka egileen eskutik. Portalean.

KALERATZEAK STOP

19.00. Kaleratzeak Stop Debabarrenaren batzar irekia. Portalean (3. solairuan).

KALEETAN KANTUZ

19.30. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

ikastaroak

✓ "Robotika Lego Mindstorms EV3" tailer teknologikoa (euskeraz)

Norentzat: Batxilergoko ikasleentzat (DBHko 1., 2., eta 4. mailakoentzat). Noiz eta non: **Abenduaren 29 eta 30ean eta urtarrilaren 2an**, Juan San Martin liburutegian. Informazioa eta matrikula: Abenduaren 12ra arte, Pegoran.

lehiaketak

✓ Arrate Kultur Elkarterako logotipoa

Zer: Logotipoan "Arrate Kultur Elkarte" edo AKE akronimoa agertu beharko dira. Lanak aurkeztea: **Urtarrilaren 22ra arte**, Arrate Kultur Elkartearen bulegoan (astelehen eta eguenetan (09.30-11.30); martitzen eta eguaztenetan, (17.00-19.00)). Postaz: Arrate Kultur Elkarte. AKE logoa. Zuloagatarren, 3 (20600 Eibar). Informazioa: 943202299 telefonoan edo arratekultu@gmail.com helbidean.

✓ Aratosteak Eibarren kartel lehiaketa

Lanak aurkeztea eta informazioa: **Urtarrilaren 21era arte**, Pegoran.

HOROSKOPOA**ARIES**

Zorte zure alde duzu. Zure ametsak egia bihurtzeko aukera izango duzu aste honetan. Beraz, badakizu: aprobetxatu!

TAURUS

Burugorregia zara. Besteen iritzia errespetatuta ere, kostatzen zaizu eurek esandakoa betetzea: malgutasun falta.

GEMINI

Indartsu eta kementsu hasi zenuen ikasturtea, baina orain dena aldatz gora egiten zaizu. Eutsi goiari eta animo!

CANCER

Gehiago zaindu beharko zenuke. Hotz egiten hasi da eta zuk udako erropa finak erabiltzen jarraitzen duzu. Uff!

LEO

Zu ez zara erraz maitemintzen den horietakoa, baina oraingoan Cupidoren geziak bihotz erdian jo ditu. Zorionak!

VIRGO

Nora zoaz itxura horrekin? Nork esan dizu orrazkera horrek altuagoa egiten zaituela? Kendu tupe hori behingoz!

LIBRA

Zure buruarekin duzun haserrearekin besteekin ordaintzen duzu, eta horrek ondorio larriak ekarriko dizkizu. Aldatu!

SCORPIUS

Orain dela gutxi ezagutu duzun pertsona bat zurekin erabat maiteminduta dago. Ez itxi bihotza esperientzia berriei.

SAGITTARIUS

Azkeneko hilabeteak arraro samarrak izan dira zuretzat; ez duzu lasaitzeko astirik izan. Ba gauzak aldatzen doaz.

CAPRICORNIUS


Aste ona izango duzu, baina diru kontuekin tentuz ibili behar duzu. Azken aldia asko gastatu duzu kapritxoetan.

AQUARIUS

Non duzu burua? Dena ahazten zaizu azken aldia. Ahalegindu apur bat gehiago kontzentratzen; bestela, ...

PISCIS

Onegia zara, beti laguntzeko prest. Kontuz: zure inguruan dauden pertsona azkar batzuk aprobetxatu egiten dira.



erakusketak

- ✓ **Abenduaren 8ra arte**
CHARO BAGLIETTOREN oleo erakusketa.
San Pio X.a elizan.
- ✓ **Abenduaren 12ra arte**
EINER RODRIGUEZ PONCEREN argazki erakusketa. *Untzagako Jubilatut Etxean.*
- ✓ **Abenduaren 27ra arte**
ROBERTO ZAMANILLO ARNAIZ-EN mikologia argazkien erakusketa. *El Corte Inglesean.*
- ✓ **Abenduaren 28ra arte**
EZPERANZA ZABALAREN margo erakusketa. *Topalekuan.*
BEGOÑA RIVAS-EN "Marea baja" argazki erakusketa. *Portalean.*
- ✓ **Abenduaren 31ra arte**
JUAN ANTONIO PALACIOSEN argazki erakusketa. *El Ambigu tabernan*
JOSE LUIS IRIGOIENEN argazki erakusketa. *Beasaingo Aterpen (Ezkiaga, 3).*
- ✓ **Martxoaren 29ra arte**
"EIBAR INDUSTRIALA 2014" erakusketa. *Armagintzaren Museoa (Portalean).*

farmaziak

- ✓ **barixakua 5**
EGUNEZ **Larramendi** (Calbeton, 19)
- ✓ **zapatua 6**
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
- ✓ **domeka 7**
EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
- ✓ **astelehena 8**
EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
- ✓ **martitzena 9**
EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
- ✓ **eguzatena 10**
EGUNEZ **Castaño** (J. Etxebarria, 7)
- ✓ **eguna 11**
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
- ✓ **barixakua 12**
EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)

GAUEZ BETI
Azkue (T. Etxebarria, 4)

telefono jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora010
- Udaletxea943 70 84 00
- Portalea.....943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea 943 70 07 99
- Debegesa943 82 01 10
- KIUB943 20 38 43
- Epaitegia943 03 34 00
- Iberdrola901 20 20 20
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak ..943 46 46 22
- Gurutze Gorria...943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia943 03 25 00
- Torrekua943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza943 53 17 00
- Eusko Tren902 54 32 10
- Pesa.....902 10 12 10
- Taxiak943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen ..650 26 59 63

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.50etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.50etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.50, 19.50 eta 20.55. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.50etara ordu, 15.00, 15.30etatik 20.50etara ordu eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.50etatik 20.50etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.50etara bi ordu, 19.50, 21.00 eta 22.00.

EIBAR-BILBO. Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu.

EIBAR-GASTEIZ. Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 08.45, 12.45, 16.45 eta 20.45. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

EIBAR-IRUÑEA. Lanegunak: 07.45 eta 13.50. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

EIBAR-ARRATE. Zapatuak: 14.00. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Jaisteko: ordu erdi geroago.

EIBAR-ELGETA. Lanegunak: 06.40, 08.40, 13.40, 15.40, 16.40, 18.40 eta 20.40. Zapatu eta jaiegunak: 08.40, 13.40, 15.40 eta 20.40. **ELGETA-EIBAR.** Jaisteko: 20 minutu geroago.

EIBAR-MENDARO. Lanegunak: 06.10 eta 07.05etatik 21.35etara 20 minuturo eta 22.20. Zapatuak: 07.00etatik 22.00etara ordu eta 23.10. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu eta 22.15. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.15, 06.50etatik 21.10etara 20 minuturo eta 22.05. Zapatuak: 06.45etatik 20.45etara ordu, 22.05 eta 22.45. Jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara eta 22.05.

EIBAR-LOIU. Egurnero: 05.50, 09.50, 13.50, 17.50 eta 21.50. **LOIU-EIBAR.** Egurnero: 07.15, 11.15, 15.15, 19.15 eta 23.15.

tren ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Egurnero: 08.15etatik 22.13etara ordu. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egurnero: 07.47etatik 20.47etara ordu. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47. **EIBAR-BILBO.** Egurnero: 08.15etatik 22.13etara ordu, 10.36 eta 21.56. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egurnero: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

hildakoak

- Inmaculada Ansola Egiguren. 68 urte. 2014-XI-26.
- Francisco Arana Aristegi. 89 urte. 2014-XI-28.
- Enrique Astarloa Berinkua. 70 urte. 2014-XI-30.
- Joxepa Ibarbia Amenabar. 78 urte. 2014-XII-1.
- Magdalena Baskaran Elordi. 81 urte. 2014-XII-2.
- Julita Valenciaga Lasuen. 76 urte. 2014-XII-3.
- M^a Jesus Madariaga Basterretxea. 83 urte. 2014-XII-3.
- M^a Teresa Telleria Maguregi. 76 urte. 2014-XII-3.
- Irene Elguren Bilbao. 90 urte. 2014-XII-3.

jaiotakoak

- Kilian Goy Estalayo. 2014-XI-25.
- Sara Ziani Mukhtari. 2014-XI-26.

		2	7		9	5		
		8				2	4	
			3	2				1
7					3			
	5						6	
			8					4
8				9	7			
	4	5				7		
		3	2		5	4		

SUDOKUA

9	3	5	6	4	7	2	8	1
2	4	7	8	1	5	9	6	3
6	1	8	3	9	2	7	5	4
1	8	6	2	5	3	4	9	7
4	7	3	1	8	9	5	2	6
5	9	2	4	7	6	3	1	8
7	6	1	5	2	4	8	3	9
3	2	9	7	6	8	1	4	5
8	5	4	9	3	1	6	7	2

AURREKOEN EMAITZA

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

– 3 logelako pisua salgai Aldatzen. Lehenengo solairua, berriztuta eta eguzkitsua. Kanpoko igogailua. Tel. 660-683280.

– Pisua salgai Legarre, 7an. Bigarren solairuan. Igogailua eta berogailua. 120.000 euro (ordainketarako erraztasuna). Tel. 685-172172.

1.2. Errentan

– Pisu ia berria alokagai Elgetan. 2 logela, egongela-jangela, sukalde osotua eta 2 komun. Igogailua eta kalefakzioa. Egoera onean eta sartzeko moduan. Tel. 606-083992.

– Eibarren pisua konpartitzeko lagun baten bila nabil. Tel. 660-833346.

– Pisua alokagai Tiburtzio Anitua kalean. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Eguzkitsua. Berrituta. Tel. 662-105257.

2. Motorra

2.1. Salgai

– Taxi lizentzia salgai Eibarren jubilaioarengatik. Tel. 696-966865.

3. Lokalak

3.2. Errentan

– Garaje itxia alokagai Eibar erdialdean. Tel. 617-688311.

– Taberna traspasatzen da Eibarko erdialdean. Tel. 659-377095.

– Garaje itxia alokagai Ardantzako geltokian. Haundia. 100 euro. Tel. 647-952677.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira:
Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro.
Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

1.1. Salgai

1.2. Errentan

1.3. Konpartitzeko

1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

2.1. Salgai

3. LOKALAK

3.1. Salgai

3.2. Errentan

4. Lana

4.1. Lan bila

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka edo externa. Tel. 648-180233.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 637-004773.

– Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 631-059689.

– Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 682-277198.

– Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 697-754174.

– Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 632-176974.

– Gizona eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 606-502567.

– Gizona eskaintzen da edozein lanetarako. Gida baimenarekin. Tel. 631-315363.

– Neska gazte euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko eta garbiketarako. Tel. 610-980628.

– Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Ordu-tegi zabala, asteburuetan barne. Tel. 631-467031.

– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako. Orduka. Tel. 626-197217.

– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako. Orduka. Tel. 632-230789.

– Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 636-841158.

– Txoferra eskaintzen da, karnet guztiekin eta garraiolarri (trailer) tituluarekin. Esperientzia. Tel. 633-181350.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo gaixoak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 662-252150.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako. Lanetarako. Tel. 638-338816.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 652-587259 eta 632-966192.

– Neska eskaintzen da lan egiteko eta umeak zaintzeko. Interna. Tel. 633-808931.

– Neska eskaintzen da sukaldean lan egiteko (14 urteko esperientzia) eta nagusiak zaintzeko. Tel. 688-682398.

4. LANA

4.1. Lan bila

4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

5.1. Eskaerak

5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

6.1. Salgai

6.2. Eman

6.3. Galdu/Aurkitu

6.4. Bestelakoak

– Neska eskaintzen da sukalde-laguntzaile jarduteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 677-259560.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 606-354982.

– Neska euskalduna eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 606-502567.

– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Gidatzeko baimena. Tel. 631-343232.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako. Esperientzia. Tel. 629-231233.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia eta informea. Ordu-tegi malgua. Tel. 669-956495.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, sukalde-laguntzaile jarduteko eta garbiketarako lanak egiteko. Tel. 632-441528.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita gauz ere. Tel. 631-417995.

– Gizonezkoa eskaintzen da sukaldean, ilea-paindegian edo okindegian laguntzeko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 602-055032.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 603-740755.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 632-800519.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 602-811263.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 608-523426.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 626-197217.

– Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 650-513412.

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta sukalde-laguntzaile jarduteko. Tel. 697-372374.

4.2. Langile bila

– Ofizial elektrikaria behar da, esperientziarekin. Kurrikuluma bidali: electricista214@hotmail.com

– Pertsona arduratsua eta esperientziaduna behar dugu laster Amañan zabalduko den degustazioan lan egiteko. Erreferentziak kontutan hartuko ditugu. Kurrikuluma eta argazkia bidali: yolitavaz@gmail.com

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

– Klase partikularak ematen ditut. LH, DBH, Batxilergoa. Edozein irakasgai. Taldean edo bakarka. Tel. 610-980628.

– Ingeleseko klaseak ematen dira. Maila guztiak. Azterketa ofizialerako prestaketa. Irakaslego natiboa. Tel. 652-763264.

– DBH eta Batxilergoko Matematika etabarrek klaseak ematen dira. 1 edo 3 ikasleren taldeak. Tel. 677-592509. Alberto.

– DBH, Batxilergo eta Heziketa Zikloetarako prestakuntza. Matematikak, Ekonomia, Fisika, Kimika, Euskera, Ingelesa, Gaztelania eta Estatistika. Tel. 685-739709 eta 943-127365.

6. Denetarik

6.1. Salgai

– 0'90eko sukaldea salgai, bonbonak eramatekoa eta labearrekin. Baita 0'90eko ohe artikulatua. Berriak. Tel. 617-688311.

– Mahai-tresneri berria salgai. 75 pieza. 180 euro. Tel. 616-533796 eta 943-752480.

– Antzinako Elme heladora salgai. 2 litroko kapazitatea. 200 euro. Tel. 628-714824.

– BH markako eliptikoa salgai. 2015eko abendura arteko garantiarekin. Tel. 645-007388. Asun.

– Umearen silla salgai, Bugaboo Be markakoa, gehi patinetea. 2011koa. Bi urtean erabiltza. Egoera onean. 360 euro. Tel. 646-274760.

– 80 bat binilo disko salgai, 80. hamarkadakoak eta dance-musikakoak. 200 euro. Tel. 628-714824.

6.2. Eman

– Gaixo/nagusiendako ohe artikulatu berria eskaintzen dute Caritasekoek, behar duenak erabili dezan. Tel. 943-202509.

6.3. Galdu/Aurkitu

– Telefono mugikorra aurkitu nuen domeka goizean Ardantzako inguruan. Tel. 943-203205.


– Tom-Tom markako GPS-a, funda zurian sartuta, galdu nuen Eibarren aurreko astean. Tel. 615-797641.

– Azaroaren 7an, barixakuan, skate beltza galdu genuen. Azpian marrakzi larrosak dauzka. Norbaitek aurkitu badu, deitu mesedez. Tel. 627-307168.

6.4. Bestelakoak

– Eibar-Sahara Elkarteak mugikorrek jasotzen dihardu, abenduan kanpamentuetara bidaltzeko. Telefonoak entregatzeko Guridi tabernara joan behar da.

EZ ZAITEZ LARANJA ERDIAREKIN KONFORMATU



**Gipuzkoako komertzio txikia.
Buruak eta bihotzak bat egiten duten lekua.**



Asko dira gure hortz-kliniketara etortzeko arrazoiak



20.000tik GORA PAZIENTE ASEBETE IZATEA DA HORIETAKO BAT

20 urteko esperientzia eta ikerketa gaur biharko
arreta jaso dezazun

 innovadental
clinicas

www.innovadentalclinicas.com

ZURE INNOVADENTAL KLINIKA EIBARREN



Bista Eder, 19 - Bajo
20600 **Eibar**

Tel: **943 70 00 82**

mail: bistaeder@innovadentalclinicas.com

www.innovadentalclinicas.com

ZURE INNOVADENTAL KLINIKA AZPEITIAN



José de Artetxe, 5
20730 **Azpeitia**

Tel: **943 02 59 55**

mail: innovaazpeitia@innovadentalclinicas.com

www.innovadentalclinicas.com